

IRAKASKUNTZA-GIDA

2016/17

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25786 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Historia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiak ikasleari jarduera fisikoak praktika sozialaren eremu bezala aurkezten dizkio, bere egungo konfigurazioaren eragile diren prozesu historikoen ezagutzatik abiatuz. Aro gaurkideko mendebaldeko Europan zentratzen da. Lagungarria da ikasleek uler eta balora ditzaten jarduera fisikoen dibertsitatea eta eboluzioa, garaian garaiko gizarte aldaketa orokorrekin lotuz. Gainera lagundu egiten die ere eboluzio hori publiko ezberdinei azaltzen.

Irakasgaia ikasketa planaren M01 "Giza motrizitatearen portaera eta gizarte oinarriak" moduluaren osagaia da. Gizarte eta Legedia zientzien adarraren oinarritzko irakasgaia da, eta bereziki lotuta dago modulo bereko Jarduera fisikoen Soziologia eta Jarduera Fisikoen Hezkuntza irakasgaiekin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN BERARIAZKO GAITASUNAK:

CE1. Jarduera fisikoen eremuaren garapena gauzatu duten prozesu historiko nagusiak identifikatu eta ulertzea, gizartearen aldaketa orokorrekin duten erlazioaren bitartez azalduz.

CE3. Informazioa eskuratu, ulertu eta elaboratu, jarduera fisikoei buruzko prozesu historikoak publiko aditu eta ez adituari ezagutzera emateko, testu prozesazailer idatziko txosten akademikoen eta irudi eta ikusentzunezko euskarrien bitartez.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G017 - Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko literatura zientifikoa ulertzea, bertako hizkuntzetan eta zientziaren eta teknologiaren esparruan erabiltzen diren beste hizkuntza batzuetan.

G018 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK:

- Ikaslea jarduera fisikoak historikoki baldintzatzen dituzten eragileak identifikatu eta analizatzeko gai izango da. Era berean, eragile horien garrantzia erlatiboa bereizteko gai izango da. Hori guztia diziplinean eragina duten ikuskera teoriko ezberdinetatik.

- Ikasle eragileek jarduerak historikoki nola baldintzatzen duten ahoz eta idatziz azaltzeko gai izango da, lanak egiten, ahozko aurkezpenak ematen eta azalpen-, argudio- edo analisi- galderei erantzuten. Lan, aurkezpen eta erantzun horiek guztiak informazio egokian oinarritu behar dira, zehaztasun maila egokia izan behar dute, kontzeptu-argitasuna, egituraketa eta ordena islatu behar dute, arguditazeko eta sintesiak egiteko gaitasuna demostratu behar dute, eta formato zaindua izan behar dute (itxura, irakurgarritasuna, ortografia, aipu eta erreferentzia sistema...)

- Ikaslea gai izango da jarduera fisikoen eta praktiken historiari buruzko informazioa bilatzeko eta kudeatzeko, jardueri buruz dituen ezagupen teorikoekin erkatuz.

- Ikaslea jarduera fisikoen historiaren ikuspegiren bati buruzko sakontze-lan bat egiteko gai izango da.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Sarrera: Irakasgaiaren gaitasun eta helburuak.

2. Jarduera fisiko modernoaren garapena Espainian eta Euskal Herrian.

2.1. Kirol joko tradizionaletik kirol modernora. Kirolaren garapena Ingalaterran. Jarduera fisikoak Europan, Espainian eta Euskal Herrian XIX. mendean.

2.2. Kirol kulturaren sarrera eta finkapena Europan, Espainian eta Euskal Herrian.

2.3. Jarduera fisiko-deportiboen garapena eta masa gizartea (1914-1940)

2.4. Kirol eredia bigarren Mundu Gerraren ostean. Jarduera fisikoak Espainian eta Euskal Herrian gerraostetik ekonomiaren garapeneraren aldira arte (1939-1960)

2.5. Jarduera fisikoak garapen ekonomikoaren aldira arte. Jarduera fisiko eta deportiboak Espainian eta Euskal Herrian garapen ekonomikoaren aldira arte (1960-1975)

2.6. Kaliforniako jarduera fisikoen eredia eta kirol aisialdiaren hedapena. Jarduera fisikoak Espainian eta Euskal Herrian frankismoaren amaieratik Bartzelonako Joko Olinpikoetara.

2.7. Egungo joerak: kirolaren globalizazio eta merkaturatzea.

3. Heziketa fisikoaren historia.

3.1. Heziketa fisiko modernoaren sorrera.

3.2. Gimnastika nazionalistak XIX. mendearen lehen erdialdean.

3.3. Eskola eta gimnastika. Gimnastika analitikoaren hedapena eta gimnasio burgesen hedapena (XIX. mendearen bigarren erdia)

3.4. Heziketa fisikoaren dibertsifikazioa

3.4.1. Esperimentalismo fisiologikoa. Entrenamenduaren eredua.

3.4.2. Kirola eta jokia, gimnastikaren disziplinarismoaren aurrez aurre.

3.4.3. Eskolaren modernizazioa: eskolako higienetik heziketa integralera.

3.4.4. Naturalismoa: gimnasia naturala, eskultismoa, eskolako koloniak.

3.4.5. Heziketa fisikoa erregimen erregimen totalitarioetan.

3.5. Heziketa fisikoaren korranteak XX. mendeko bigarren erdian.

3.6. Heziketa fisikoaren gaur egungo joerak.

Gai praktikoak:

4. Bibliografia bilaketa. Informazioaren kudeaketa, irakurketa eta erabilera lan akademikoak egiteko.

5. Agiri akademikoaren betebeharrak eta testu prozesadoreen bitartez idaztea.

6. Jarduera fisikoaren historiaren inguruko gai garrantzitsuak aditua den publikoari eta ez denari azaldu eta balioraztea, horretarako testu, irudi eta ikus-entzunezko materialak sortuz.

METODOLOGIA

Ebaluazio mixtoa jarraitzen duten ikasleentzat (%80ko derrigorrezko bertaratzearekin):

Irakasgaien bi metodo erabiliko dira:

A- Aro garaikideari buruzko gaiak klasean azaldu eta landuko dira, metodologia kooperatibo ezformalaren bitartez. Ikasleek azalpenak jaso, materialak aztertu eta galderei erantzunon diote. Autoebaluazioa eta pareen arteko ebaluazioa formatiboa erabiliko da, gaiei buruzko galderei erantzuteko. Hala ere, kalifikazioari begira, ikasitakoaren ebaluazioa proba idatzien bitartez egingo da, klasean landutako galderei edo antzerakoei erantzunez. Irakasgaiaren lanaren %60 eskatuko du.

B- Garaikide aurreko aroei buruzko gaiak lantzeko metodologia Egitasmoetan Oinarritutako Irakaskuntza Kolaboratiboan (IKD-PBL) oinarrituko da. Ikasleek talde txikietan banatuko dira eta jarduera fisikoaren historiari buruz irakaskuntza-materiala sortzeko proiektu bat egingo dute, Jarduera fisikoaren historia azaltzeko aldaketa sozialekin duten harremana nabarmenduz.

Oharra: Ebaluazio mistoaren sistema egiteko ezinbestekoa da gutxienes klase orduen %80ra bertaratzea. Edozelan ere, hutsegite guztiek justifikatu behar dira. Beste alde batetik, ebaluazio mistoaren sistemal entregagaiak epearen barnean eta behar bezala ematea eskatzen du. Taderen bat bi alditan epez kanpo ematen baditu, edo entregagaien kalitatea eskasegia bada, ebaluazio mistoaren sisteman jarraitzeko irakaslearen onarpen esplizitua behar izango da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		10		5				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		15		7,5				

Legenda:

M: Maistrala

S: Mintecia

GA: Gelako p.

GL: Laborateiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Test motatako proba % 20
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA MISTOAREN

- Jarduera fisikoen historiari buruz lankidetzan oinarritutako talde-egitasmoa (PBL) gauzatzea (ariketak, aurkezpenak, txostenaren eta defentsaren ebaluazioa: notaren %40. Notaren zati bat ikaskideen arteko elkar-ebaluaziotik etor daiteke. Gutxieneko nota: 5 (hamarren gainean).

- Aro garaikideko jarduera fisikoen inguruko gaien ebaluazioa garatu beharreko proba idatzien eta test motatako proben bitartez ebaluatuko da. Proban gaitasun praktiko batzuk ere neurtuko dira (aipu eta erreferentziak erabiltzeko oinarritzko gaitasuna, adibidez). Gutxieneko nota: 5 (hamarren gainean).

- G017 zeharkako gaitasuna (literatura zientifikoaren irakurketa) proiektuaren bitartez ebaluatuko da, eta, ikasle guztiek eta bakoitzak lortu dutenentz konprobatzeko, neurtuko da ere garatu beharreko proba idatziaren bitartez.

- G018 zeharkako gaitasuna lankidetzan oinarritutako egitasmoaren bitartez ebaluatuko da, Informazio eta Komunikazio Tekniken erabilera neurtuz.

Oharra: Ebaluazio mistoraen sistema eskola orduen %80ra bertaratzea eskatzen du. Edozelan, hutsegite guztiak justifikatu beharko dira. Gainera, entregagaiak epearen barruan eta behar bezala eman behar dira. Talderen batek bi alditan epezkanpo entregatzen baditu, edo entregagaiak kalitate oso eskasekoak badira, ebaluazio mistoaren sisteman jarraitzeko irakaslearen onarpen esplizitua behar izango da.

AZKEN AZTERKETAREN BIDEZKO EBALUAZIOA:

Ebaluazio sistema hau soilik eskubidea duten ikasleentzat da. Ikasle horiek azken ebaluazioaren proban aurkez daitezke, irakasgaiaren ehuneko ehunez ebaluatuak izateko.

Proba horrek zati ezberdinak izan ditzake. Edukien ezagutza eta ulermenean zein irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez eta azalpen- eta argudio-galderez gain, proba praktiko bat ere izan ditzake, ebaluazio mistoa jarraitu duten ikasleek landutako ezagutzak eta gaitasun berak lortu direla demostratzeko. Azterketa proba ezberdinak izan ditzake, eta baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktiko bezala.

Azterketan, eduki praktikoen artean, egitasmoaren edozein zatia azaltzea eskatu daiteke. Hori dela eta, ikasle hauei gomendatzen zaie ebaluazio sistema mistoan eskatzen den egitasmoaren antzekoren bat prestatzea.

Proba hau ezin da izan bigarren aukera izan ebaluazio mistoa egin duten ikasleentzat.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Deialdiari uko egiteko nahikoa da proiektuaren azken txostena ez ematea edo/eta ebaluazio mistoaren azterketara ez aurkeztearekin, eta ebaluazioaren proba ez aurkeztea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasturte honetako ohiko deialdian ebaluazio mistoa egin duten ikasleek, aurkeztu edo/eta gainditu ez duten entregagaiak eta egin ez duten aurkezpenak hobetzeko eta aurkezteko aukera izango dute, irakasgaiaren ebaluazio bezala.

Ebaluazio jarraia egin ez duten ikasleek ohiko deialdirako zehaztu den azken ebaluazio sistema bera izango dute.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Deialdiari uko egiteko nahikoa da proiektuaren azken txostena ez ematea edo/eta ebaluazio mistoaren azterketara ez aurkeztearekin, eta azken ebaluazioaren proba ez aurkeztea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren Moodle gelan agertuko dira.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Almeida, Antonio S. (2004). Historia social, educación y deporte. Lecturas sobre el origen del deporte contemporáneo. (1. arg.) Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- Ayerbe, Enrique. (Ed.). (2001). Deportes y juegos populares vascos: cultura física, juego y desafío. Lasarte-Oria: Ostoa.
- Ayerbe, Enrique. (Ed.). (2001). El mundo del deporte: competición, salud y espectáculo. Lasarte-Oria: Ostoa.
- El deporte de masas (1770-1993): Una aproximación histórica a la educación física y el deporte en España. Valencia, España: Ayuntamiento de Valencia.
- Caspistegui, F. Javier, eta Leoné, Santiago. (2010). Cien años de relación entre los navarros y el deporte (1901-2001). Iruñea: Eunsa.
- Díaz, J. Antonio. (2008). Euskal kirolaren eta selekzioen historia = Historia del deporte y las selecciones vascas. 2 ale. Durango: Euskal Kirol Federazioen Batasuna = Unión de Federaciones Deportivas Vascas.
- During, Bertrand. (1993). La crisis de las pedagogías corporales. Málaga: Unisport.
- García, Jorge. (2015). El origen del deporte femenino en España. Salamanca: Egilek argitaratua.
- Iglesias, J. César. (1991-1993). El deporte en España (3 vol). Barcelona: Lunwerg.
- Mandell, Richard D. (1988) Historia cultural de deporte. Barcelona: Bellaterra.
- Parlebas, Pierre. (1998). Elementos de sociología del deporte. Málaga: Unisport.
- Pastor, J. Luis. (1997). La Educación Física en España: fuentes y bibliografía básica (1883-1961). Guadalajara: Universidad de Alcalá.
- Pastor, J. Luis. (1997). El espacio profesional de la Educación Física en España: génesis y formación (1883-1961). Guadalajara: Universidad de Alcalá.
- Pastor, J. Luis. (2000). Definición y desarrollo del espacio profesional de la Educación Física en España (1961-1990). Guadalajara: Universidad de Alcalá.
- Manual de publicaciones de la American Psychological Association(2013) [3ª ed. traducida de la 6ª en inglés] Mexiko: El Manual Moderno.
- Pujadas, Xabier. (Coord) (2011). Atletas y ciudadanos. Historia social del deporte en España 1870-2010. Madrid: Alianza.
- Rivero, Antonio. (2003). Deporte y Modernización: La actividad física como elemento de transformación social y cultural en España, 1910-1936. Madrid: Comunidad de Madrid.
- Rodríguez, Juan. (2000). Historia del deporte. Barcelona: Inde.
- Salvador, J. Luis.(2004). El deporte en Occidente. Historia, cultura y política. Madrid: Cátedra.
- Sentamans, Tatiana. (2010). Amazonas mecánicas: engranajes visuales, políticos y culturales. Madrid: Ministerio de Cultura - Secretaría General Técnica.
- Vázquez, Benilde. (1989). La educación física en la educación básica. Madrid: Gymnos.
- Zagalaz, M.Luisa. (2001). Corrientes y tendencias de la educación física. Barcelona: Inde.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Collinet, Cécille. (2000). Les grands courants d'éducation physique en France. París: Presses Universitaires de France.
- Defrance, Jacques. (1987). L'excellence corporelle: La formation des activités physiques modernes. 1770-1914. Rennes (France): Presses Universitaires de Rennes ; Revue S.T.A.P.S.
- Gleyse, J. (1995). Archéologie de l'éducation physique au XXe siècle en France. Paris: Presses Universitaires de France.
- Guttmann, Allen. (1978). From ritual to record: the nature of modern sports. New York NY: Columbia University Press.
- Rauch, André. (1983) Le souci du corps. Histoire de l'hygiène en éducation physique. París (Francia): PUF.
- Zoro, Jean. (2002). Images de 150 ans d'E.P.S. Association des Enseignants d'EPS.

Aldizkariak

- Apunts Educación Física y Deportes.
E.P.S (Éducation Physique et Sports)
Journal of Sport History
Journal of the Philosophy of Sport.
Lecturas: Educación Física y Deportes (<http://www.efdeportes.com/>)
Perspectivas de la Actividad Física y el Deporte .
Quel Corps?
The International Journal of the History of Sport

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK